


# Zeru bete bele beltz



PAULA ESTÉVEZ



**BEA SALABERRI**  
IRAKASLEA

**U**rtero bezala, heldu da ekaina, ikasturtearen hondarra, ikasleen uzteko unea, eta urtero dut gogoaz azpimarratzeko zerbaitek baikorra, zapore ona duena. Eta izan nuen garaia, hainbat urtez, idatzi bainituen hemen sorta ederrak, euskalgintza-ren lanaz, ikasleen lorpenez, gauzatzen diren mirakulu txiki bezain funtsezko horiei buruz.

Aitortzen dut zenbaitzuetan, alabaina, bilatu ditudala elementu horiek, xerkatu eta bortxatu argumentua, batzuetan enfasia kotsia eman, ikasle bat euskaldundu izana zoriontzeko hitzik arraroena aurkitu, lorpen profesionalaren edertzeko adjektiboa hautatu, destinoa dugula azpimarratzeko metafora aproposa landu. Hezigaitz bezain suntsiezin baikinan, kontrako guziari ostiko eta besagainka. Gutxitan gezurtxoak kondatu ditut, euskarak distira dezan pixka bat gehiago.

Aurten, euskararen kale erabileraren neurketaren datuak publikatu ziren, lotsagarri, eta hortik bi egunetara ikasleek galdegin zidaten, kalipu handiz, noiz eta non egin euskaraz, non ditudan planak, nola egin hizkuntza ez galtzeko, zein den haien zat geroa. Eta nik hitz apropos gutxi baizik ez, ez dut deus asmatu.

Edo bai, “atzeman lan edo bikote euskalduna”: penagarria txantxetan. Batzuetan nago ea erran behar zaienez egia, hemen ez dela euskaraz egiten, ez dela hizkuntz politikarik, ez engaiamendurik, ez inbertsiorik, ez lortu-beharrekorik, ez zigorrik bete ezean, borondate gutxiegi baizik, diskurtso anitz. Ez gaudela horretan. Hemen erdararen politikak segitzen duela aitzina, jende gero eta gehiagoren zeregin eta ogibide izanik ere. Gehiago dena, bakarrenek, beti berdinek, txirotasunean eramaten dugula. Burutik pasa eta isildu nintzen, diskurtso baikorrak behar direla baitakit, bestela peko erre-kara doala afera eta, ezinean, isiltzea dela hobe.

Banengoen: eta horren ondotik zer? Horren ondotik eta beste guziaz gain, noski, aipatzekoak ez baitira eskas. Bada mendea erabilerak behera egiten duela. Badira bederen 25 urte baxoa eta bre-beta euskaraz ezin direla pasa. Mende erdia euskararen ezagupen instituzionala ukatzen dela. Hogeitaz inguru euskara zerbitzu publikoetan garatuko dela hitzmaten dela eta jada bost urte Elkargoaren proiektuetan idatziz jarria izan zela, bihamunen zain. Badira hamazazpi urte hizkuntz politika publikoa badela. Zortzi hamarkada kontzien-

tziatze eta kanpaina. Badira hamabost urte eskatzen dela hizkuntza-eskakizun sistema martxan ematea lan munduan. Badira 25 urte lanean ari naizela eta ene saria doi-doi 500 euroz igo dela. Badira hamar urte, tai gabe, ari garela erraten belaunaldi gazteek, bai, haiek badakitela eta eginen dutela: ama ikastolatik landa denak erdaraz ariko direla dakigularik. Eta beste. Urte horien guzien iraupenak lerrokatzen balira, bata bestearen ondoan, baliteke mila bat argi-urteko distantzia estaltzekoa. Zeru bete bele beltz. Zergatik kontrarioa kondatu? Indarrak eta ekimenak, neurriak eta lanak, asmoak eta diruak, ondorio hain gutxiengatik, funtsezko baliabide eta erabakiak ez baitira sekulan heltzen.

Hori idaztekoan nintzela, miserableki, horra non semeak eskolako zakutik atera zidan gutun azal txiki zuria, ene izena zeramana letra larri eta hotzez eta xingolaz troxaturik hetsia. Lehen bezala eskuz esku helarazia, sekretuan. Ekin-tzarako deia aipatzen zen, haien azterketen euskaraz pasatzeari begira. Bazenekite nola senditu nintzen orduan! Berpiztu nintzen. Erresumindu eta diaboliko, gauez eta leku sekretuetara joateko prest senditu nintzen, ene baitako garrak oro hauspoturik. Aire! ●